Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 406

Urriak 1, 2021

“Txikitatik praktikatu dut iraupen-eskia”

Maialen Lopez, iraupen-eski eta rollerski modalitateetako kirolaria

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Memoria Historikoaren Bulegoa
5 Ezkontzen azoka
6 Irunabar
7 Natalia Cambronero
8 Kirolak: Haimar Etxeberria
9 Kirolak: Maialen Lopez
10 Udazkeneko kultur agenda
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Gazteentzako ekintzak
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

56666

57846

57681

1921eko urriaren 9an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariakn argi erakusten du orain dela mende bat zer zen Irunen albiste. Aldizkariko lehen idatzian hirian konponketak egiteko lanak nola antolatzen eta adosten ziren azaltzen da. "Romance" titulua duen artikuluan neskatila kuxkuxero bati gertatutakoa kontatzen du Yolek. "Charlas femeninas" atalean, berriz, "La de los ojos de color de uva" kolaboratzaileak Irunen neskak eta mutilak oso banatuta daudela azaltzen du.

Aldizkariaren bigarren orrialdean, kirol kronika zabal batean, Vazquez jokalariarekin zer gertatuko den kontatzen zaie irakurleei. Bestetik, Espainiako selekzioak Belgikgako jokalarien aurka jokatuko duen partiduaren xehetasunen berri ematen da. Igandean Amuteko zelaia berriro martxan jarriko dela iragarri ostean, Patriciori Real Union taldeak egingo dion omenaldirako irundarrek eta gainontzeko taldeek egindako ekarpenenak jakinarazten dira. Jarraian, Irunen aski ezaguna izan zen Arrieta jostuna gogoratzen da, joskintzarekin lotutako ipuin bat argitaratzearekin batera. "Un remontista" kolaboratzaileak hirian eraikitzen ari den kirol zelai berriak izan beharreko ezaugarriak zerrendatzen ditu. "Notas Municipales" atalean azken udal bilkurako erabakien laburpena irakur daiteke.

Re-la-mi-do kolaboratzaileak sinatutako idatzian bi artisten arteko eztabaida kontatzen da, eztabaidagai ziren terminoen esanahia argitzeko. "Ecos de sociedad" atalean hiriko pertsona ezagunenen bizitzako azken gertakariak errepasatzen dira. "Noticias" atalean, aldiz, Hondarribiko itsasontzi batek izandako istripuaren ostean, biktimei laguntzeko Irungo Udalak abiatutako diru-bilketa jakinarazten da. Azkenik, Irungo kontsultategi antituberkulosoak zozketatutako objektuekin saritutakoen zerrenda argitaratzen da publizitatera bideratutako azken orrialdearen aurretik.

Argazkiak:

56666: 1909an eraikitako Patronatuko frontoian jokatutako pilota partida.

57846: Amuteko futbol zelaia, Irun Sporting Futbol Klubaren egoitza, partida egun batean (XX. mendearen hasiera).

57681: Egungo Bidasoa kaletik ikusita, Santiago kalearen atzealdean dagoen ontze fabrika, Beraungo gainaren hegalean dauden soroak eta gaur egun Salís etorbidea eta Legazpi kalea, Juncal eliza, nesken eskolen atzealdea (gaur egun Oiasso Museoa), Beraungo oinetxea... Atzealdean, Aiako Harria (eszena 1909a baino lehenagokoa da).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Irungo Udalak erosketa jasangarriak sustatzeko urratsa egin du

Irungo udalak hiriko erosketetan poltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzeko kanpaina aurkeztu du. Guztira, 13.000 poltsa banatuko dira hiriko merkatarien artean "Erosi Irunen" leloarekin. Ekimenaren helburua ohitura jasangarriak bultzatzea da, erabilera bakarreko plastikozko poltsak ordezkatzeko.

Eskolako Agendan proposatutako ekimena da. Programa horrek udala eta ikastetxeak biltzen ditu, hiria jasangarritasunaren aldetik hobetzen jarraitzeko ekintzak elkarrekin lantzeko, natur ingurunea zaintzetik hasita, merkataritza arduratsua sustatzeraino, kasu honetan bezala. Borja Olazabal Garapen Jasangarriaren ordezkariak adierazi duenez, "tokiko dendetan erostea kontsumo arduratsuaren sinonimoa bada, are gehiago da poltsa berrerabilgarriak erabiltzen baditugu". Garapen Jasangarriko ordezkariak azaldu duenez, ideia Eskolako Agenda 21 programan proposatu zen eta gero Aurrekontu Parte-hartzaileetan hautatua izan zen.

2019-2020 ikasturteko Eskola Agendan parte hartu zuten ikastetxeek egindako proposamenen artean, "dendetan poltsa berrerabilgarriak erabiltzea sustatzeko udal-kanpaina" bat egitea onartu zen, eta, automatikoki, Aurrekontu Partizipatiboetarako ideia bihurtu zen, eta, azkenean, aukeratua gertatu zen. Izan ere, azken urteotan, Eskolako Agendaren bidez txikienek helarazten dituzten ideiez ere elikatzen da herritarren ekarpenen artean 1,5 milioi banatzen dituen prozesu hori. COVID-19ak sortutako osasun-krisiagatik, kanpaina ezin izan zen gauzatu 2020an, eta orain jarri da martxan.

Poltsak askotariko saltokietan

Garapen Jasangarriko arlotik azaldu dutenez, "helburua da dendakoek erabilera bakarreko plastikozko poltsaren ordez poltsa berrerabilgarria banatzea". Horregatik, ahalik eta poltsa berrerabilgarri gehien banatu nahi dira saltoki txikietako erabiltzaileen artean; izan ere, normalean, denda horietan, erabilera bakarreko plastikozko poltsak banatzen dituzte bezeroen artean.

Asmoa da poltsa berrerabilgarri hori eguneroko erosketari lotua egotea eta horien erabilera erosleen ohituren artean txertatzea; adibidez poltsan sartuta, edo autoan, edo zamarran, edo galtzetako poltsikoan eramatea ... Horregatik, poltsa hori auzoko dendetan banatuko da, batez ere harategietan, arrandegietan, janari-dendetan, eta abar. Beste helburu bat da denda horiek babesten laguntzea, kontuan hartu behar baita saltoki ertain eta handiek baliabide propioak izaten dituztela antzeko ekintzak egiteko.

Mikel Castro Marrubi gozoki dendako dendariak adierazi duenez, "ekimen ona iruditzen zaigu, plastikoaren kontsumoa murriztu ahal izateak duen garrantzia kontuan hartuta". Marrubi dendan, Irungo beste hainbat saltokietan bezala, behin baino gehiagotan erabiltzeko poltsak banatuko dituzte datozen egunetan zehar, horiek erabiltzeko asmoa erakusten duten bezeroen artean. "Garrantzitsua iruditzen zaigu aspaldiko ohitura bat berreskuratzea, hau da, jendeak bere poltsa etxetik ekartzea, eta are gehiago, ohitura horiek gazteen artean txertatzea", gaineratu du Mikel Castrok.

Aurrekontu parte-hartzaileak herritarren esanetara

Martxan da 2022ko Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesua. Ekimenak udalak herritarren parte-hartzearekin duen konpromisoa erakusten du. Aurrekontu irekien zazpigarren edizioa izango da eta, hiria hobetzeko asmoz, prozesuak herritarren iradokizunak, proposamenak eta ideiak jasoko ditu. Guztira, 1,5 milioi euro jarriko dira herritarren eskura.

Iazko prozesuan pandemiak eragin nabarmen izan bazuen ere, 2021ean ekimena berreskuratu nahi izan da pandemiaren bilakaerara egokituta. Informazioaren Gizarteko eta Herritarren Parte-hartzeko arloak aurreko edizioen ildoan doan prozesu bat itxuratu du, baina ekimena kalean indar handiagoz izango da. Lehenik eta behin 20 proposamen finalista aukeratuko dira, ondoren herri-bozketa egiteko. Bozketa urriaren 13tik 19ra egingo da, eta lau bide izango dira horretarako: saio presentzialak, udalaren webgunean online jasota, kalean jartzen diren karpetan jasota eta beste proposamen bat, Irungo Auzo Elkarteen Federazioak aurkeztutakoa, hiriko auzo-elkarte guztiekin adostua.

Bi saio presentzial Palmera Monteron

Finaleko fasean sartu aurretik, irailaren 20an eta 27an saio presentzialak egin ziren Palmera Monteron. Bi saio horietan 6 proposamen hautatu dira zuzenean azken bozketara pasatzeko, 3 bilera bakoitzeko. Bestetik, irailaren 21 eta 23an irekita egon zen online bidez ekarpenak jasotzeko prozesua. Proposamenek baldintza hauek bete beharko dituzte onartuak izateko: urtebetean egin ahal izatea (2022), gaia Irungo Udalaren eskumenekoa izatea, teknikoki bideragarriak izatea, ezarritako aurrekontuaren barruan sartzea eta interes orokorrekoa izatea, ez pribatua.

Lehen urratsak eginda, urriaren 1etik 4ra aurrebozketa bat izango da eta 8 proposamen bozkatuenak finalera pasatuko dira. Aurrebozketa modu irekian egin ahal izango da, identifikazio elektronikorik gabe. Finalisten zerrendan, kalean jaso diren beste 5 proposamen ere gehituko dira.

Gazteen prozesua

Udalaren webgunea urriaren 13tik 19ra ere irekita egongo da, gazteen prozesuko ideiak jasotzeko. 16 urtetik 30era bitartekoentzako prozesua da. 20 proposamen joango dira finalera: 12, online jasotzen diren proposamenen arteko aurrebozketaren ondoren; 4, karpetan eta ikastetxeetan jasotakoetatik; 2, udaleko Gazteria Zerbitzuan jasotakoetatik, eta gainerakoak, Eskolako Agenda 2030etik. Udalaren webgunean kontsulta daiteke prozesu hau guztia, eta Irungo etxe guztietara ere iritsiko da, informazioa atarietan jarrita irailaren 13tik 17ra bitartean.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irungo Memoria Historikoaren Bulegoak ateak ireki dizkio berreskurapenari

Memoria Historikoaren Bulegoa Udal Artxiboaren alboan kokatuta dago eta irailaren 13an hasi zen lanean. Bulegoak ezartzen dituen helburuen artean daude gerrako eta diktadura frankistako biktimen familiei aholkularitza ematea eta garaiko dokumentuak eta objektuak biltzea. Santi Jiménez Memoria Historikoko Ordezkariak eta Aitzol Arroyo arloko teknikari berriak aurkeztu dute zerbitzua.

Santi Jiméenez Memoria Historikoko Ordezkariak azaldu duenez, "Udalak Memoria Historikoa sustatzeko hartu duen konpromiso irmoari erantzuten dio proiektu honen sorrerak eta ezarpenak". Memoria Historikoko Ordezkariak 1936ko Gerra eta ondorengo diktadura frankista pairatu zutenen memoria gordetzearen garrantzia azpimarratu du.

Horrela, Memoria Historikoaren Bulegoak lehen kontsultak jaso ditu jada. Dena den, Santi Jiménezek azaldu duenez, bulegoaren irekierak udako oporrekin kointziditu duenez, "datozen asteetan bulegora kontsulta gehiago iristea espero dugu". Aitzol Arroyo pozik agertu da Memoria Historikoaren Bulegoan jasotako lehen kontsultekin, hainbat istorio "bitxi eta ezberdin" iritsi baitira lehen bileren bitartez. Erabiltzaileekin lehen bilerak izan ostean, orain kasu bakoitza aztertu eta galderentzako erantzunak bilatzeko lanari ekingo diola aurreratu du Arroyok.

Izan ere, lehen bilera horiek erabiltzaileak eta haien istorioak hobeto ezagutzeko balio izan dute. Momentura arte jasotako testigantzen artean, era askotariko kontakizunak azaleratu dira. Bildutako lehen bitxikerien arten, gerran zauritutako aitaren edo erbestera joandako senideen bizipenenak jaso dira. Bestetik, bere familiari buruzko ikerketa bat egiten ari den pertsona baten zalantzak erantzun dira, ikerketa nola bideratu dezakeen jakin nahi baitzuen. Aitzol Arroyok adierazi du Irungo Memoria Historikoaren Bulegoan era guztietako pasarteak jasotzeko prest daudela. "Kontatu nahi diguten edozer gauza entzun edo gurekin partekatu nahi dituzten dokumentuak jasotzeko prest gaude", gehitu du Memoria Historikoaren Bulegoko teknikariak.

Bitxikerien artean, garai historiko zehatz horrekin lortutako objektuak ere jasoko ditu bulegoak. Dohaintzan eman daitezkeen objektuen adibideak zerrendatu ditu Aitzol Arroyo teknikariak: gutunak, fronteko edo langileen batailoietako argazkiak, idatziak, epaitegietako sumarioak edo ziurtagiriak, besteak beste. Normalean familiak etxean gorde ohi dituen dokumentuak dira eta, istorioen antzera, askotarikoak izan daitezke. "Ahalik eta dokumentu-bilduma zabalena lortu nahi dugu", azaldu du Aitzol Arroyok.

Bilketaren ostean, zer?

Bulegoak bildutako materiala Irungo Artxiboaren parte izatera pasako da, dokumentazio publikoa izan dadin eta interesa duen edonork kontsultatu ahal dezan. Santi Jiménezen hitzetan, "garai historiko horren azterketa amaitu nahi dugu". Gainera, jasotako material eta objektu guztiak erakusketa batean bildu nahi dira. "Ideia erakusketa 2023 urte hasierarako prest egotea da", gehitu du Jiménez ordezkariak. Erakusketaz gain, datozen hilabeteetan zehar bulegoaren beste helburuetako bat frankismoaren biktimen testigantzak grabatzea eta biltzea izango da.

Bulegoaren beharra

Memoria Historikoaren Bulegoaren helburua da Irungo gerrako eta frankismoko biktimen memoria kolektiboa ez ahaztea. Santi Jiménezek adierazi duenez, "Irunek ezin zuen gehiago itxaron horrelako zerbitzu bat izateko eta orain dugun aukera aprobetxatu behar dugu". Memoria Historikoko ordezkariak gogoratu duenez, gero eta gutxiago dira garai historiko hori zuzenean bizi izan zuten pertsonak eta testigantza zuzenak eman ditzaketenak. "Memoria historikoko elkarteek eta herritarrek ere hala eskatzen dute, garai hartan gertatutakoa jakin nahi dute".

Bulegoaren jarduera 1936ko Gerra eta diktadura frankistaren garaiko informazioaren bilketan zentratu behar zen hasiera batean. Dena den, Santi Jiménezek onartu duenez, "garai historiko horren aurreko eta osteko informazioa ere biltzea interesgarria izan daitekeela uste dugu". Aitzol Arroyok, berriz, informazio hutsune handiena gerra gaian aurkitzen dela azaldu du. "Gerrak Irunen iraun zuen hilabete eta erdian Bigarren Errepublikari buruz dagoen argitalpen bakarra Fronte Popularrak egindakoa da", azaldu du Memoria Historikoko Bulegoko teknikariak. Gerra gaian argitalpenak egitearen zailtasuna azaldu du Arroyok, gerra egoeran beste lehentasun batzuk daudela gogoratzeko.

Memoriaren Historikoaren Astearen balorazioa

Abuztuaren 30etik irailaren 5era Memoria Historikoaren Astea ospatu zen lehen aldiz Irunen, 1936ko Gerraren 85. urteurrena haitzakiatzat hartuta. Santi Jiménez eta Aitzol Arroyok Memoria Historikoaren Astearen inguruan antolatutako jardueren balorazio positiboa egin dute. Abuztuaren 31n eta irailaren 1ean egindako hitzaldietan guztiz bete zen Amaiako hitzaldi-aretoa. Hitzaldiek izandako arrakasta ikusita, Memoria Historikoko zerbitzutik adierazi dutenez, "hitzaldiak aurrerago berriz eskaintzeko aukera aztertzen ari gara". Bestetik, kalean panelen bitartez antolatutako erakusketaz mintzatu da Santi Jiménez: "kaleko erakusketak ere arrakasta handia izan zuen, jendea bai testua irakurtzeko zein argazkiei begiratzeko gelditzen zela ikusi genuelako".

Etorkizunean hirian memoria historikoaren berreskurapenarekin loturik antolatutako ekintzez galdetuta, Santi Jiménezek datorren urtera begira programazio zabalagoa prestatzeko asmoa adierazi du: "Guztion artean memoriaren aste landuago bat diseinatzea gustatuko litzaiguke". Horrela, Memoria Historikoko ordezkariak ekitaldiak urte osora zabaltzeko prestutasuna adierazi du. Gainera, datozen hilabeteetan Abenida Zubian Lluís Companysen omenez plaka bat kokatuko dela gogoratu du ordezkariak. Hortaz, datozen urteetan atzemango diren beharrek eta eskakizunek baldintzatuko dute Memoria Historikoaren Bulegoaren eta Astearen etorkizuna.

Ficoba erakustazokak V. Ezkontza Azoka hartuko du urriaren 16an eta 17an

Ficoba erakustazokak "Los Muñecos de la Tarta" Ezkontza Azokaren V. edizioa hartuko du urriaren 16an eta 17an. Pandemiaren eraginez 2020ko edizioa bertan behera geratu zen. Aurtengo edizioan 21 erakusketarik parte hartuko dute eta berrikuntzen artean, webgunearen bidez hitzordua erreserbatzeko aukera eskaintzen da. Fernando Vergara azokaren antolatzaileetako batek aurtengo edizioaren xehetasunak azaldu ditu.

2021ean "Los Muñecos de la Tarta" azoka Ficobara itzultzea albiste ona da antolatzaileentzat?

Albiste ona da ezkontza-sektorearentzat. Urte eta erdi honetan, COVID19k eragindako krisi ekonomikoa gehien pairatu dugunetakoak izan gara. 2020an, ezkontzaren sektoreak beste urteekin alderatuta %8a baino gutxiago fakturatu du. Beraz, normaltasunera itzultzea albiste ona da guretzat.

Pandemiak eragin handia izan du ezkontzen antolaketan. Zuen ustez, ezkontzen sektorea suspertzen hasi da?

COVID19aren intzidentzia-datuek hobera egin dutenez, murrizketa neurriak leundu egin dira. Uztailera arte, gutxi gorabehera, ezkontza gehienak 2022. urtera atzeratu dira. Uztailetik aurrera, berriz, bikote gehienek ezkontza aurrera eramatea erabaki dute, asko eta asko 2020tik itxaroten baitzeuden. Egia esan, orain arte egin diren ezkontzen emaitza oso ona izan da.

Azokaren bosgarren edizioa izanda, dagoeneko finkatuta dagoen ekitaldi bati buruz hitz egin daiteke?

Guk baietz uste dugu, bi arrazoirengatik. Erakusketari gehienek urtero errepikatzen dute, emaitzak baikorrak direlako, eta, bestetik, urtero 220 bikote baino gehiago igarotzen direlako azokatik. Bi datuen batuketak azoka ondo doala eta oso bizirik dagoela adierazten du.

Zenbat erakusle izango dituzue aurten?

Aurten 21 erakusle gara, baina ez dugu baztertzen azken orduko parte-hartzaileren batek izena ematea.

Nola laguntzen die azokak bertan parte hartzen duten erakusketariei?

Azoka leku aproposa da ezkontzeko asmoa duten bikoteak ezagutzeko, eta erakusketariek aukera bikaina dute bikote horiekin harremanetan jartzeko. Azken batean, azokak ezkontzekoak diren pertsonak ezkontza hornitzaileekin elkartzen ditu.

Nolako sektoreak aurkituko dituzte azokara joaten diren bisitariek?

Erakusketarientzat ekonomikoki oso eskuragarria den azoka denez, askotariko sektoreak egotea lortzen dugu. Argazkilariak, bideografoak, makillatzaileak, ezkontzako autoen alokairua, eta, jakina, andregai soinekoak, mutilentzako jantziak, bitxiak eta abar.

Gainera, aipagarria da eskualdeko enpresen partaidetza zabala, ezta?

Hala da, Irungo jendeak antolatutako azoka da, eta ilusio berezia egiten digu erakusketarien zati handi bat Irun eta eskualdekoak izateak. Azokak lortzen duena da jende asko etortzea Gipuzkoako barnealdetik, Nafarroatik, baita Bizkaitik eta Iparraldetik ere.

Nori zuzenduta dago azoka?

Ezkontzear dagoen edo asmoa duen pertsona orori, nahiz eta oraindik data zehatzik ez izan, 2022. edo 2023. urteetan ezkontzekoak izan daitezkeenak.

Aurtengo berrikuntza nagusietako bat hitzordua webgunearen bidez erreserbatzeko aukera da. Zeintzuk dira zerbitzu berri honen abantailak?

Zehazki, edukieraren gaiarekin, COVID19a dela eta, agintariek zehaztutako neurriekin bat datorren edukiera errespetatu behar da. Erreserben tresnarekin, etorri nahi duten bikoteek aukeratutako ordutegian tokia dutela ziurtatzea lortzen da, eta, gainera, azokako osasun-baldintzak bermatuta daudela ziurtatzen dugu.

Gainera, Covid Free azoka bat antolatzeko neurri guztiak hartu dituzue?

Hori da, aurreko galderan esan dizudan bezala, %100ean errespetatuko ditugu gobernuak azoka gune segurua izan dadin eskatzen dizkigun neurriak.

Aurten ere azoka Ficoban egingo da. Kokapenak beste hiritako edo mugaren beste aldeko publikoa erakartzen laguntzen du?

Ficoba azoka-esparrua da ezkongaien azoka antolatzeko lekurik aproposena. Instalazio bikainak dira, eta gure lana errazten diguten profesional-talde bat dute atzean. Gainera, doako aparkaleku bat dago bertan. Euskotren geltokia, berriz, 100 metrora dago.

Azokaren V. edizioa urriaren 16an eta 17an egingo da. Zer ordutegirekin?

11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 20:00etara irekiko dugu, bazkaltzeko ordubete itxiz.

Non aurki dezakete interesatuek azokari buruzko informazio interesgarri guztia?

Instagramen eta Facebooken, sare sozialetan. Gainera, azokarekin loturiko informazioa zabaldu eta hitzorduak erreserbatzeko webgune bat ere badugu: www.losmunecosadelatarta.es

Zer aurreikuspen dituzue aurtengo edizioaren aurretik?

Helburua beti azoka gutxienez 200 bikotek bisitatzea da, baina aurten ilusio berezia dugu eta bisitari gehiago izango ditugula uste dugu. Ikusiko dugu zer gertatuko den.

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Irunabarreko kideek bertsotan bizitza kantatzen jarraituko dute beste ikasturte batez

Irunabar, Irungo Bertsoaren Bilgunea, Txingudiko Bertso Eskolaren kudeaketaz arduratzen da. Ikasturte berria urriaren 1ean hasiko dute eta izena emateko epea zabalik dago jada. Txingudi Badian bertso eskola ezberdinak dauzkate. Adrian Arruti eta Irati Alcantarilla irakasleek azaldu dutenez, ezagutza-maila desberdinak dituzten ikasleak onartzen dituzte eta ezinbesteko baldintza bakarra bertsotan trebatzeko gogoa izatea da.

Nola prestatzen ari zarete ikasturte hasiera?
Adrian: Iazko ikasleekin hartu-emanak izan ditugu iraila hasi eta orain arte. Haien jarraikortasunarekin batera, gure blogaren eta sare sozialen bitartez deialdia egin dugu kanpoko ikasle horrek izena eman nahiko balu gurekin bertsotan aritzeko aukera izan dezan.

Pandemiak bertsoen munduan eragina izan du?
Irati: Bai bertsoen munduan eta bai orokorrean. Beldur handiagoa nabaritu daiteke. Ni umeen irakaslea naiz eta azkenaldian zalantza asko ikusi ditut gurasoen artean haurrak bertso-eskolan apuntatzearen inguruan. Asko galdetzen digute ea klasean neurri guztiak betetzenmantentzen diren edo ez.

Adrian: Guk kokaleku ezberdinetan dauzkagu bertso-eskolak eta leku horien edukierara egokitu ditugu protokoloak. Aurreko ikasturtean hala ibili ginen eta ikusiko dugu ikasturtean zehar zer gertatuko den.

Zeintzuk dira aurreikusitako neurriak momentuz?
Adrian: Bi bertso-eskola Irungo AEKren egoitzan egiten dira eta han bederatzi laguneko edukiera daukate gela bakoitzeko. Urriaren 1ean hasiko gara eskolak ematen eta LABIak iragarritako azken neurrietara egokituko gara. Aurrerantzean gauzak aldatuko balira, moldatuko ginateke. Hendaiako gaztetxean egiten diren bertso-eskolen kasuan, berriz, ez dago edukiera arazorik, neurriak askoz zabalagoak direlako.

Zenbat talde daude Txingudi Bertso Eskolaren barnean?
Adrian: Kronologikoki sailkatu genitzake. Haurren bertso-eskola hasieran, heldu hasiberrien taldea, bat-batekotasuna lantzen hasteko taldea eta benetan bat-batean inolako arazorik gabe aritzeko gai direnak. Bestetik, aurrekoekin zerikusirik ez duen bertso tailer bat dugu, proiektuetarako erabiltzen duguna. Hau da, kantaldiak antolatzeko edo bertso paper lehiaketetan parte hartzeko.

Zer jakin behar da bertsolaritzan murgildu aurretik?
Irati: Nik kudeatzen dut talde hori eta nire ustez garrantzitsuena gogoz etortzea da. Bertan ikasten dira oinarrizko gauzak: bertso batek errimak dauzkala, bukaeratik hasi behar dela, doinuak kantatzen ditugu, ... Asteazken gauetan ematen ditugu eskolak eta helduak direnez, lanetik edo egun osoaren ostean nekatuak egon daitezkeela ulertzen dugu, beraz, bertsoa deskonektatzeko jolas modura erabiltzen dugu.

Hortik aurrera, nola laguntzen dituzue bertsolariak haien ezagutzetan sakontzeko?
Adrian: Beti dago hobetzeko zerbait, baita bertsolari onenen kasuan. Lanketa kolektiboan hasi eta lanketa propioraino doa. Egoitz Zelaiak kudeatzen duen bat-bateko taldeetako batean "metabertsoa" deritzon bertsoaren egitura lanketan sakontzen da eta hori hobetzen saiatu beharko genuke guztiok, nahiz eta gero ez lortu.

Bertsolaritzak ez du adinik?
Adrian: Ez. Txingudiko Bertso Eskolan adin guztietako pertsonak elkartzen direlako bertan. Bertsolari gazteenak bospasei urte izango ditu eta kide beteranoenak, aldiz, 74. Jaizubian elkartu ohi garenetan sekulako adin nahastea dago bertan.

Irati: Adin desoreka egon arren, segituan sortzen da taldea eta konplizitatea. Polita eta bitxia da nahasketa hori ikustea.

Zer egin behar da izena emateko?
Adrian: Gure webgunean irailean zehar bertso eskolen eskaintzaren berri eman ohi dugu, eskola bakoitzaren arduraduna nor den zehaztuz. Beraz, irakasleari telefonoz deitzearekin nahikoa da. Bestela, interneteko sarbidean emaila ageri da, irunabar@gmail.com, eta hortik gurekin harremanetan jartzeko ohitura du jendeak.

Nola aurreikusten duzue ikasturte berria emanaldiei dagokienez?
Adrian: Izurritearen aurretik bertso-eskolen egunak antolatzen genituen. Pandemiarekin ekintza horiek guztiak bertan behera geratu dira. Aurten ekintza horiek berreskuratu ahal izatea espero dugu. Irunabarreko kideak emanaldi guzti horiek berreskuratzeko lanean ari gara, ahal bezain laster jendaurreko emanaldiak itzul daitezen.

Irati: Bestetik, hilabeteko lehen ostegunetan Kabigorriko Bertso gauetan elkartu ohi ginen eta bertsolari berriak trebatuagoenekin taularа igotzeko aukera ematen zigun.

Elkartearen egoera ikusita, Txingudi badian bertsolaritzak etorkizuna bermatuta du?
Irati: Nik baietz esango nuke. Bai eskoletara datorren jende kopuruarengatik zein jendeak bertsolaritzarekiko duen inplikazioarengatik. Ikasle asko laster plazan edo nahi duten tokian kantatzeko prest egongo dira.

Adrian: Bai, espero dezagun. Zaletasuna bada eta ez da gutxi, baina norbanakoari dagokio plazan kantatzeko aukerak arakatzea edo beste maila batzuetan aritzea. Irunero eta Hitza hedabideekin baditugu hilabeteroko bertso jarriak eta hori ere bertsolaritza zabaltzeko beste modu bat bada. Uste dut orain daukagun egoera oso osasuntsua dela, nahiz eta egoera honetan plaza digitalak benetako plazari lekua irabazten ari zaion. Momentuz behintzat ondo gaudela esango nuke, ikusi beharko da hemendik bost edo hamar urtera egoera nolakoa den.

Auntxa Trikitixa eskola
TRIKITIXA eta PANDEROA
• 6 urtetatik aurrerako haur eta helduentzat zuzenduta
• Irakasteko metodo desberdinak: Zenbakiz osatutakoa, aurrez-aurre, solfeoz
943 618 839 - 615 790 510 - info@auntxatrikitieskola.com
Aldabe Mendia Kalea 31, IRUN - Elizalde Herri Eskola, Manuel Lekuona 5, OIARTZUN

Natalia Cambronero, artista:

"Adour-Bidasoa saria oso berezia da artista batentzat eta, are gehiago, irundarra izanda"

Natalia Cambronerok irabazi du 2021eko Adour-Bidasoa lehiaketako lehen saria. Egun Senperen bizi den artista irundarrak sortutako "Blood" lanak argazki posterizatuak eta ehungintza artea uztartzen ditu. Udalaren pintura ondarearen barruan sartuko da artelana. Natalia Cambronerok lan sarituaren sorrera prozesua nolakoa izan den azaldu du.

Nola sentitu zinen Adour-Bidasoa 2021 lehiaketa irabazi zenuela jakinarazi zizutenean?
Egia esan, oso pozik. Adour-Bidasoa saria oso berezia da artista batentzat eta, are gehiago, irundarra izanda.

Zergatik erabaki zenuen lehiaketan parte hartzea?
Saritua izan den obra, espresuki lehiaketara aurkezteko asmoz sortu nuen. Hala ere, abuztuan zehar landu ditudan autorretratuen segida baten parte da. Taliban Gobernua Afganistanen sartu ondoren hasi nintzen proiektu honetan lanean, Afganistango emakumeen eta nesken inguruan sortutako arazoa islatzeko asmoz. Nire asmoa egunez egun pairatzen dituzten debekuak ikustaraztea da, adibidez, ezin dutela etxetik kanpo lan egin edo ezin dituztela azazkalak margotu. Abuztuan hasi nintzen egunero serie honen autorretratuak argitaratzen nire sare sozialetan, nik sortutako ehungintza- artearen pieza batekin batera. Banekien Adour lehiaketarako deialdia zabalik zegoela, baina hasiera batean ez nekien argazki lanak onartzen zirenik eta udalera deitu nuen informazioa jasotzeko. Hasiera batean, argazkiak lehiaketara aurkezteko maila nahikorik ez zuela pentsatu nuen. Orduan digitalizatzea erabaki nuen, pintura digitalarekin lan egin eta posterizatzeko. Horrela, kolore gorria sartzea erabaki nuen, testuinguruan kokatu eta isuritako odola islatzeko.

Beraz, postprodukzio prozesuak ahalbidetu du azken emaitza eskuratzea?
Bai. Argazkia lortu aurretik argia edo kolorea lantzen dituzu. Gero, postprodukzioko lan handia egin dut, irudia posterizatzeko eta nahi nuen emaitza bilatzeko.

Obra sortzeko prozesua espero zenuen bezain erraza izan zen?
Bai, oso prozesu arina izan zen. Senetik sortutako obra da, bai proiektua, bai obra bera. Oso prozesu senezkoa eta arina izan da.
Zergatik ipini diozu "Blood" titulua lanari?
Nire helburua ikuslearen arreta neureganatzea da, eta bere denborari minutu batzuk lapurtzea, afganiar emakume eta neskato guztien tokian jar dadin, bizi duten egoeraz jabetzeko. Badirudi oso urrun dagoen zerbait dela eta ez digula axola behar, baina ez luke horrela izan behar. "Blood"-ek isuritako, isurtzen ari den eta isuriko den odola irudikatzen du.

Obra "29 prohibiciones"deituriko segidaren barruan kokatuta dago, ezta?
Bai. Sare sozialen bitartez garatutako proiektua da eta Adour-Bidasoa jaso aurretik, jada segida erakusketa fisikoetara eramateko gonbidapenak jaso nituen. Lehen erakusketa hori Senperen egingo da, nire bizilekuan. Hortik aurrera, ideia proiektuari ahalik eta zabalpen handiena ematea da. Uste dut saritutako lana segida honen barnean egoteak proiektuaren zabalpenean lagundu dezakeela, mezua pertsona gehiagotara iritsi dadin.

Erraza izan zen zuk nahi zenuen mezua transmititzeko modua aurkitzea?
Bat-batean sortu zen. Nire lan artistikoa gai sozialari oso lotuta egon da beti, eta nire obra epigenetikari eta belaunaldiz belaunaldikoari lotuta dago beti. Senak ehuntzen hastera bultzatu ninduen, gero ispiluaren aurrean jarri, arropak erantzi eta obrarekin berarekin esperimentatzen hasi nintzen. Horrela erabaki nuen autorretratu sail bat izatea. Aintzatespenik gabe sortuko lukeena baino arreta handiagoa ematen dio sariak lanari, eta horrek mezua pertsona gehiagorengana iristea eragiten du.

Artea komunikazio eta aldarrikapen mekanismo bat ere izan daitekeela erakusten du lan honek?
Picassok ondo esan zuen bezala, arteak ez du hormak apaintzeko bakarrik balio behar, artea etsaiaren aurrean eraikitzeko eta babesteko gerra-elementua da. Uste dut horrela izan beharko lukeela eta arteak apur bat harago joan beharko lukeela.

Emakumea zarenez, errazagoa egin zaizu Afganistango emakumeen lekuan jartzea?
Bai, noski. Segundo batzuez bakarrik emakume horien lekuan jartzen bazara eta egin ezin dituzten gauza guztiez eta debekuez konturatzen bazara. Ni emakumea naiz, eta 17 urte dituen alabari begiratzen diot. Oilo larrua jartzen zait.

Eta oraindik bereziagoa al da zure hirian sari bat jasotzea?
Bai. Artista guztiei gustatzen zaigu gure lanagatik errekonozimendua jasotzea, eta etxean bada, oraindik gehiago gustatzen zaigu. Lana Amaia Kultur Zentroko erakusketan ikusi daiteke.

Zeintzuk dira zure hurrengo asmoak?
Orain arte nire lan artistiko guztia Askatasun Arte izeneko elkarte baten bitartez bideratu dut. Landa-lanean eta memoria historikoan buru-belarri lanean aritu naiz. Orain arte dezente landu dut obraren garapena, gogo handia bainuen. Beste proiektuek antolakuntza eta komisario gehiago behar zituzten. Epigenetikari eta transgenerazionalari buruzko erakusketa bat prestatzen ari naiz Oiasso museoarentzat, eta ehungintza-arteari buruzko erakusketa bat da. Orain aukera hori sortu da, eta proiektu honek bultzatzen duen sinergia aprobetxatuko dut, beste erakusketa pare bat eskatu dizkidate eta. Datorren urtean beste gizarte-proiektu mota batzuk egiteko asmoa dut, herritarrak ere inplikatuta dauden proiektuak aurrera eramatea gustatzen baitzait.

22 Academy
22academybaile.com 943 50 98 94

HAMAIKA
Hobeto bizitzeko irtenbideak
ZURE ETXEA ERAIKIZ
hamaika.com (+34) 943 64 64 12

Haimar Etxeberria txirrindulariak Flandeseko Junior Mailako Mundu Txapelketan parte hartu du

Haimar Etxeberria Flandesen jokatu den Junior Mailako Munduko Txapelketan lehiatu da. Irungo Txirrindulari Elkarteko kirolariak erlojupeko eta ordekako proban lehiatu zen. Txirrindulari irundarrak, ordea, ez zituen esperotako emaitzak lortu, arazo mekanikoak eta erorketa bat tarteko. Haimar Etxeberriak Belgikan bizitako esperientzia errepasatu du.

Nola lortu zenuen Munduko Txapelketan lehiatzeko aukera?
Txapelketa honetan egon ahal izatea denboraldi osoan zehar lortutako garaipenen emaitza izan da. Lasterketa asko egin ditugu urte osoan zehar, zehazki, 40, egindako lasterketa guztiak zenbatu bainituen atzo. Beraz, denboraldian zehar egindako lasterketa guztietan emaitzak onenak lortu ditugun txirrindulariek izan dugu Munduko Txapelketan parte hartzeko aukera.

Flandesera joan aurretik, Hungarian eta Txekiar Errepublikan lehiatu zinen. Zer moduz ibili zinen bertan?
Oso esperientzia polita izan da. "Nations Cup" txapelketa maila altuko txapelketa da. Selekzio bakoitzeko sei kirolarik parte hartu dezakete bertan. Hungariako azken etapetan oso eroso sentitu nintzen, zortzigarren postu bat lortu nuen eta, hortik, Txekiar Errepublikara gogo askorekin iritsi nintzen. Txekiar Errepublikan ibilbidea aldapatsua da, Euskadikoaren antzekoa, eta etapa batean 5. postua lortu nuen eta bestean 8. izan nintzen, beraz, oso pozik geratu nintzen lortutako postuekin eta sentsazioekin.

Kirolari gaztea izanda, aukera aparta da Munduko Txapelketan lehiatzea?
Bai, Munduko Txapelketa batean lehiatzea amets bat da. Hungarian eta Txekiar Errepublikan lortutako postuen ostean emaitza on bat lortu nezakeela uste nuen, fisikoki inoiz baino hobeto nengoelako. Zorte txarra izan dut, baina gaztea naiz, beraz, gertatutakoa atzean utzi eta hurrengo batean pentsatzen hasteko garaia da.

Flandesen erlojupekoan eta ordekakoan lehiatu zinen. Zein modalitateetan sentitzen zara erosoago?
Aurten Euskadiko Txapelketako Erlojupekoa irabazi nuen, baina hemengo lasterketek gorabehera gehiago dauzkate, hangoak guztiak lauak diren bitartean. Erlojupeko on bat egin ahal izateko ibilbide gorabeheratsuak nahiago ditut, errepidean hobeto moldatzen bainaiz.

Nola moldatu zara ibilbide laura egokitzeko?
Beldur apur bat pasatu nuen. Hemen 42 km/h abiaduran ibili ohi gara lasterketetan eta han 52 km/h-ra. Erlojua begiratzen nuen, baina ez gehiegi, abiadura handia denez bihurguneetan erorketak saihesteko adi egon behar baitzara. Denetarik ikasi behar da.

Erraza da txapelketen aurretik urduritasunak kontrolatzea?
Ni neure buruarekin oso zorrotza naiz eta asko eskatzen diot. Beraz, urduritasunekin nahiko ondo moldatzen naiz eta uste dut presioa ondo kudeatzen dakidala.

Erlojupeko proban arazo mekanikoak izan zenituen?
22 kilometroko erlojupekoa zen eta 17. kilometroan ez nuen ondo ikusi eta zulo batetik pasatu nintzen. Ondorioz, katea atera zitzaidan eta gertatutakoa konpontzea lortu nuenean albotik pasa ziren beste txirrindulari batzuen atzean sartu nintzen. Kotxetik 15 metrora joan behar nuela esaten zidaten. Helmugan, berriz 25 metrora joan behar nintzela esan zidaten eta deskalifikatu egin ninduten. Katea atera ostean horrek berdin zuen, lortu behar nuen postua txarra izan behar zelako.

Ordekako proban erorketa bat izan zenuen. Minik hartu zenuen?
Zirkuituak bihurgune asko zituen eta horietako batean erori nintzen. Besoan min apur bat daukat oraindik, baina ezer larria ez izatea espero dugu. Bizikleta ere kolpearen ondorioz hondatu egin zitzaidan, pieza bat guztiz okertu zen eta abiadura-aldagailuak ez zuen ondo funtzionatzen. Beraz, Munduko Txapelketa hor bukatu zen.

Nola kudeatzen duzu egoera gauzak nahi ez bezala ateratzen direnean?
Zorte handia dut, inguruan nire txapelketak gertutik jarraitzen dituzten senide eta lagun asko dauzkadalako. Lehengusu, aita, amona eta beste pertsona askoren babesa sentitzen dut eta beraiekin hitz egiteak asko laguntzen nau. Aita eta lagun batzuk munduko txapelketa zuzenean ikustera etorri ziren eta egun hauetan beraiekin egoteak asko lagundu dit.

Zerbait ikasteko aukera izan duzu?
Maila honetako lasterketetan lehiatzean eskarmentu handia zeureganatzen duzu. Gaztea naizela badakit eta pixkanaka esperientzia lortzen joan behar dudala, aurrerago profesionala izatera iristeko.

Txapelketaz gain, Flandesen giro politaz gozatzeko aukera izan zenuen?
Bai, esperientzia izugarria izan da. Oso ondo gogoratzen dut, zirkuitua ikustera joan ginenean sprint batzuk egin genituela gorputza aktibatzeko eta Aranburu eta Gorka Izagirreren gurpiletara itsatsita joan nintzela. Momentu berezia izan zen, duela gutxi telebistan edo Itzulian Hondarribiko irteeran ikusi bainituen eta haiekin argazki bat ateratzea eskatu nien. Polita izan zen nire burua haien alboan ikustea.

Noizbait Munduko Txapelketara itzuli eta emaitza hobetzeko aukerarik ikusten duzu?
Horretarako ahaleginduko naiz. Orain 23 urtez azpiko mailara pasako naiz eta kategoria berri horretan lehen urtea zaila izango bada ere, dena emango dut. Lehen urtean ahal dudan guztia ikasten saiatuko naiz, datozen urteetan emaitza onak lortzeko.

Zeintzuk dira zure hurrengo kirol hitzorduak?
Aurtengo denboraldia amaitu berri dut. Otsailetik astebururo txapelketak izan ditut. Egun batzuk hartuko ditut lasaiago ibili eta deskantsatzeko, bi edo hiru aste barru berriro ere martxan jarri aurretik. Orduan hasiko naiz denboraldi berria prestatzen.

Maialen Lopez, iraupen-eski eta rollerski modalitateetako kirolaria:

"Rollerskiak neguko iraupen-eski denboraldia prestatzeko aukera ematen dit"

"Urrutira joan gabe, Irunen rollerski txapelketa bat antolatzen du Irungo Mendizaleak elkarteak, Erlaitzeko Igoera"

Ez da lan erraza Maialen Perez kirolari gisa deskribatzea, bi kirol ezberdin baina osagarri praktikatzen baititu. Urtaroek markatzen dute bere kirol denboraldia, izan ere, neguan elurrarekin iraupen-eskia praktikatzeko aukera du eta udaran, berriz, rollerskiak entrenatzen jarraitzeko balio dio. Maialen Lopez irundarrak bi kirol modalitate horien praktika nola uztartzen duen azaldu du.

Noiz eta nola hasi zinen iraupen-ekia praktikatzen?
Txikitatik praktikatu dut iraupen-eskia. Nire aita monitorea zelako hasi nintzen, eskiatzeko txangoak eta bidaiak antolatzen zituelako. Txikitatik eskiatu dut, baina 13 urterekin hasi nintzen lehiatzen. Talde nazionalarekin lehiatzeko aukera izan nuen eta horrek egunero entrenatzera eraman ninduen. Horrela, udako kirolean bihurtu den rollerskia ezagutu nuen, neguko iraupen-eski denboraldirako entrenatzeko aukera ematen diguna. Abendutik martxora arte baino ezin dugu eskiatu, eta gainerako hilabeteetarako antzeko kirol bat bilatu behar dugu entrenatzen jarraitzeko. Rollerskia entrenamendu kirol bezala sortu zen, baina gaur egun lehiaketak ere antolatzen dira.

Zein da iraupen-eskia eta eski alpinoaren arteko aldea?
Jende gehienak eski alpinoa baino ez du ezagutzen, baina iraupen-eskia beste modalitate bat da. Egia esan, ez dago antzekotasun handirik, soilik eskien eta elurraren beharra. Iraupen-eskian eskiatzen aldapak igo eta jaisten dira, zirkuitu zirkularra izaten baita. Gainera, gure botak eta finkapenak desberdinak dira, makilak luzeagoak dira, eta, beraz, bi modalitate oso desberdin dira.

Aurreko denboraldia nahiko ezohikoa izan zen pandemiaren ondorioz?
Aurreko denboraldian aurreikusitako kirol proba asko bertan behera geratu ziren, lehiatzeko neurri zorrotzak eskatzen baitziren. Hala ere, Euskadiko eta Nafarroako txapelketak Belaguan antolatu ziren. Txapelketa herrikoi guztiak bertan behera geratu ziren eta profesionalak bakarrik mantendu ziren.

Nola prestatzen ari zarete hurrengo denboraldia?
Irailetik azarora bitartean antolatzen dira rollerski lehiaketa gehienak. Azaroaren amaieran elurra egitea espero dugu, abenduan lehen lehiaketak egin ahal izateko. Egia da ez dela aurreikusten aurreko urteetan adina lasterketa antolatzea.

Nola moldatzen zara elurretan entrenatzeko?
Asteburuetan eskiatzeko Jacaraino desbideratzen naiz eta Sonport eta Candanchuko geltokietan eskiatzen dut. Rollerskiren kasuan, asko gustatzen zait Jaizkibelgo igoera Lezotik, Hondarribikoa baino apur bat suabeagoa baita. Oso polita da mendatea entrenatuz igotzea ilunabarra ikusten den bitartean.

Udaran eskia alde batera utzi eta gurpiletara igotzen zara. Zertan datza rollerskia?
Rollerskiak patin moduko batzuk dira, eta bastoiekin eta eskiatzeko botekin batera erabiltzen dira. Behobia-Donostia lasterketan ez bezala, mugimendua antzekoa da, ez dute balaztarik eta posizioa aldatu egiten da. Balaztarik ez dagoenez, lehiaketa gehienak azalera lauetan edo igoeretan egiten dira.

Jaca Hiriko Rollerski Txapelketan parte hartu duzu orain dela gutxi, ezta?
Jacan bi txapelketa antolatu ziren batera. Larunbatean proba klasikoan oso ondo moldatu nintzen sailkapen orokorrean hirugarren denbora onena eta nire kategorian lehena lortu bainituen. Igandean, berriz, estilo libreko proban denbora okerragoa egin nuen eta nire kategorian hirugarren postuan sailkatu nintzen azkenean.

Hemen inguruan jende askok praktikatzen duen kirola da?
Ni Irungo Mendizaleak elkarteko kide naiz eta badira kirol berean dabiltzan beste zenbait pertsona. Hala ere, txapelketa herrikoietan askotan Irungoa den eta ezagutzen ez nuen jendearekin aurkitzea gertatu izan zait.

Irunen bertan rollerski txapelketa antolatzen da, ezta?
Urrutira joan gabe, Irunen rollerski txapelketa bat antolatzen du Irungo Mendizaleak elkarteak, Erlaitzeko igoera. Gipuzkoako eta Nafarroako kluben liga batean sartuta dago eta Ola sagardotegian hasi eta Erlaitzeko aparkalekuraino iristen da.

Erraza da kirol hauek praktikatzeko denbora nahikoa aurkitzea?
Arratsaldero kirolen bat praktikatzeko denbora ateratzen saiatzen naiz. Osasuntsu egotea gustatzen zait, beraz, astean bitan entrenamendu funtzionalera noa eta gainontzeko egunetan korrika egitera ateratzen naiz. Eguraldi ona egiten duenean rollerskia praktikatzeko aprobetxatzen dut, baina, entrenamendua amaitu ondoren, norbait nire bila joatearen mende nago.

Iraupen-eskiaren eta rollerskiaren arteko lotura estua da?
Teknika antzekoa da. Apur bat aldatzen da elurraren kasuan lurra irregularragoa dela, eta asfaltoa, berriz, erregularragoa. Hala ere, entrenamenduak guztiz osagarriak dira bi modalitateetarako.

Jendearen atentzioa erakartzen duten kirolak dira?
Jacan iraupen-eskia ez da hain deigarria mundu guztiak ezagutzen duelako. Hemen, berriz, rollerskiak jakin-min handiagoa sortzen du, askotan, entrenatzen ari naizen bitartean, jendea hurbildu eta egiten ari naizenaz galdetzen dit.

Zergatik iruditzen zaizkizu erakargarriak kirol hauek?
Elurra egiten duenean, paisaiak ikusgarriak dira, eta zoragarria da naturaz inguratuta kirola egin ahal izatea. Gainera, asteburuetan deskonektatzeko aukera eskaintzen dizute. Eragin gutxiko kirolak dira, ez dute lesionatzen eta oso erakargarriak izan daitezkeela uste dut.

Zein asmo dituzu datozen hilabeteetarako?
Orain entrenamendu serioagoekin hasi nahi dut sasoian egoteko. Abenduan egingo diren lehen lehiaketetarako prest egotea gustatuko litzaidake, eta Euskadiko txapelketetan lehenengo postua lortzeko borrokatzea.

Ekitaldiz gainezka dator udazkeneko kultur agenda

Udazkeneko kultur agenda ekitaldiz gainezka dator Juncal Eizaguirre Kultur ordezkariak iragarritakoaren arabera. Antzerki, zinema, musika eta dantza emanaldien multzo handi bat eskainiko da irailean, urrian eta azaroan zehar. Ikuskizunak hainbat agertokiren artean banatuko dira, hala nola, Amaia Kultur Zentroa, CBA eta Oiasso Erromatar Museoa.

Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak azaldu duenez, "urte amaierara arte, kultura-agenda bizi bat prestatzen ari gara, eta dagoeneko hirian nabaritzen hasi gara". Udaren ostean, emanaldiak ohiko guneetara itzuliko dira. Esateko, Amaia Kultur Zentroa izango da erreferentziazko puntu horietako bat, betiere pandemiak agindutako neurrietara egokituta. Juncal Eizaguirrek gaineratu duenez publiko guztientzako jarduerak eskainiko dira, bertako sektoreko profesionalei laguntzeko. "Helburua: kulturaren alde egiten jarraitzea, are gehiago garai hauetan", gehitu du Kultura ordezkariak.

Amaiako oihala altxatu da

Amaia Kultur Zentroan urrian eskainiko den lehen emanaldia urriaren 3an 19:00etan Neri(H)ari konpainiak eskainiko duen "Mutu" dantza emanaldia izango da. Antzerkia urriaren 9an itzuliko da, 19:00etan, Atalaya Teatroren gaztelaniazko "Elektra.25" ikuskizunarekin. Egun bat geroago, urriaren 10ean, Ostomila Txontxongilo taldearen "Untxia eta Koioteren abenturak" iritsiko dira Irunera goizeko 11:00etan eta 12:30etan.

Azaroaren 1ean, 18:00etan, "Recuérdame! El tributo a Coco" antzezlana ikusteko aukera izango da, eta azaroaren 6an, 19:00etan, "Cinco minutos" lana eskainiko dute Andoni Aguirregomezkorta eta Itziar Urretabizkaia aktore ezagunek. Glu Glu Produkzioak euskarazko "Perez Sagutxoa" obra ekarriko du Irunera azaroaren 27ko 17:00etan. Azaroaren 28an, berriz, Kemen Dantza Taldearen txanda izango da, 19:00etatik aurrera. Ikuskizun multzo honi amaiera emateko, Yllana Teatro eta "The Opera locos" ikuskizuna eskainiko da, abenduaren 5eko 19:00etan.

Zinemaren kasuan, berriz, Dokuirun programaren hiru hitzordu baieztatu dira: Urriaren 15eko 19:00etan Julian Templeren "Crock of gold" (2020), Azaroaren 5eko 10:00etan Leo Cebrián Sanzen eta Paco Manjónen "Ellas son eléctricas" (2021) eta Abenduaren 10eko 19:00etan David Truebaren "Si me borrara el viento lo que yo canto" (2019). Bestetik, "Zure abenturaren bila" ikus-entzunezkoen zikloari jarraipena emango zaio 5 ikuskizunekin: Urriaren 7an "Iran eta Erdialdeko Asia

"Urte amaierara arte, kultura-agenda bizi bat prestatzen ari gara"

Juncal Eizaguirre,
Kultura arloko ordezkaria

bizikletan", Azaroaren 11n "Cyclotherapy: Érase una vez un sueño. 9 años viajando por el mundo en bicicleta", Azaroaren 25ean "Remoteana: yo puedo con Los Andes", Abenduaren 2an "Bizikletaz Zeelanda Berriko hegoaldeko irlan" eta Abenduaren 16an "Papua Nueva Guinea".

Ikuskizun horiek guztiak Amaia KZn egingo dira, eta sarrerak ohiko lekuetan eskuratu ahal izango dira: Turismo Bulegoan, www.irun.org/sarrerak helbidean eta Amaia KZko leihatiletan ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik, tokirik geratzen bada. Era berean, pandemiagatik ezarritako neurriak beteko dira jardueretan, hala nola, edukiera, musukoa, distantziak, etab. Gainera, Urriaren 19, 20 ,21 eta 22an, 19:30ean, Irungo Done Jakueren XVII. Astea.

Musika-agenda

Kultura arloak urteko azken hiruhilekorako musika-agendaren berri eman du, hiriko jardueren agenda indartzeko egindako apustua agerian utziz. Lehen kontzertua urriaren 16an egingo da Amaia Kultur Zentroan eta Carlos Sadness izango da lehen gonbidatua bere laugarren diskoa, "Tropical Jesus", aurkezteko. Bestalde, urriaren 30ean Amaiako auditoriuma Petti Petti eta Etxeko Uzta eta Incarnatus Orkestra arituko dira Eneritz Furyakekin batera, "Manipulazio estrategiak" diskoa aurkezteko. Udalaren webgunean eskuratu daitezke bi kontzertu horietarako sarrerak.

Irun Zuzenean jaialdia

Irun Zuzenean Festibalaren edizioa berria Ficobako 3. pabilioian egingo da azaroaren 13an. Oraingoan, Olimpia, Sara Zozaya eta La Bien Querida izango dira artista nagusiak. Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak azaldu duenez, "zuzeneko musikaren alde egin dugun apustuan oso eskaintza indartsua ekarri genuen 2020an, eta aurten eskema beraren arabera jokatu nahi dugu. Sarrerak berriro ere doakoak izango dira eta gonbidapenak baimendutako edukieraren arabera banatuko dira, orduan indarrean dauden neurrien

arabera.

Kultura KM0

Musika abenduan Ficobara itzuliko da Kultura KM0 jaialdiari esker, tokiko musika-taldeak izango direlarik protagonistak. Hitzordua abenduaren 18an da eta emanaldi nagusietako bat Kulto Kultibo taldeak eskainiko du, datozen egunetan jakinaraziko diren beste artisten artean. Jaialdia doakoa izango da eta, Irun Zuzenean bezalaxe, 3. pabiloian izango da. Gonbidapenak jaialdia egiten den garaian edukierari buruz indarrean dauden neurrien arabera banatuko dira.

Erakusketen eskaintza

Erakusketei dagokienez, aipatzekoa da Adour-Bidasoa txapelketatik hautatutako lanak Amaia KZn ikusi ahalko direla urriaren 10era arte. Bisiten ordutegia Amaia KZko ohiko ordutegia izango da: asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara, igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30era eta astelehenetan itxita. Bestalde, Menchu Gal aretoa proposamen berri batekin dator. Azaroaren 21era arte Daniel eta Ainize Txopitea artisten Destinia erakusketa bisitatuko ahalko da. Azkenik CBA Udal Liburutegia programazio berezi bat prestatzen ari da urrian Emakume Idazleen Eguna ospatzeko, liburutegitik antolatutako gainerako jarduerei batuko zaiena.

Oiasson etenik gabe lanean

Oiasso museoak denboraldiari hasiera emateko, "Camino de Santiago, se hace camino al andar. Historia, arqueología, arte, leyendas y mitos jacobeos" ikastaroa proposatzen du, Donejakue bideari buruz. Bestetik, museoak antzerki eta irakurketa dramatizatuko tailerren antolaketari eutsiko dio, joan den udaberrian izandako arrakasta handiaren ostean. Azkenik, azaroaren 15etik 20ra, FICABen XXI. edizioa egingo da Irunen eta, hasiera batean, lehiaketaren proiekzioak online emateko aukera ere eskaintzen da. Museo Erromatarra ere musikarentzako agertoki izango da. Azaroaren 27an, 19:00etan, Jaime Alvarellos gitarristak joko du, Oiassoko kontzertu akustikoen programazioaren barnean. Gonbidapenak aurki jarriko dira salgai museoan.

EGUZKITZA LH2

Eguzkitza eskolako 2. Mailako ikasleek, ikasturte honetan jo eta ke dabiltza matematika ikasten eta problemak asmatu dituzte. Den dena ikasleek egin dute asmatu eta ebatzi. Artista azkarrak!!!

Denbora-pasak

7 hitz: Espeziak

D	A	X	J	E	W	P	H	K	O	Q	O	D	C	
H	Q	I	O	Y	C	H	F	U	N	E	D	W	W	
D	Z	N	P	Y	P	J	N	M	A	A	G	K	D	
F	G	C	I	H	P	C	X	I	E	U	X	A	O	
Z	U	J	P	I	V	J	Z	N	C	C	P	Z	B	
U	Q	E	E	D	Q	P	V	O	X	R	K	A	Q	
U	B	N	R	M	A	R	T	O	R	R	I	F	Z	
P	H	G	R	X	S	B	B	G	M	H	J	R	Z	
B	K	I	A	W	C	A	Y	C	E	X	R	A	K	
I	L	B	U	U	W	N	P	Q	O	W	Y	I	A	
H	D	R	T	E	W	I	E	I	T	M	P	N	N	
C	L	E	S	B	Q	L	N	Z	P	Z	T	B	E	
Q	V	D	T	C	T	L	T	Q	A	C	C	C	L	
J	O	K	F	K	L	A	J	R	R	O	K	F	A	

Azafrai, banilla, jengibre, kanela, kumino, martorri, piperrauts.

		3	2	8				4
			3	7	4	8		9
				9	6		5	7
			9	2	1			
	6	5			8			
8			5			7		
		1						
7	5	4	6				8	
	8			1				

BIDASOA

Doinua: Ia guriak egin du

Egilea: Abel Zabala Elizazu

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

1-Bidasoa dut kantugai
bere zubi bere ibai (Bis)
izango ote naiz gai?
saiatu behar dut, bai!
azaleratzen egia
dagoena, alegia.

2-Munduan migrante asko
ez direnak bizi bapo (Bis)
sorterritik eskapo
gerra dagoelako
edo gosea bestela
errealitate krudela.

3-Eta iristean hona
zein gustu txarreko broma (Bis)
zubirik ez, da horma
parez-pare dagona
eta hori nola pasa
ez da batere erraza

4-Bi zubi bi pasabide
hainbat polizia kide (Bis)
aizazu adiskide!
muga ez dago libre!
jendeak dion bezala
beltza baduzu azala.

5-Askok ez dakigu nola
gainditzen duten kontrola (Bis)
zortearen tonbola
aurrez-aurre dagola
behin ta berriro saiatuz
sarri helburua lortuz.

6-Egunaren arabera
ez daukate zorte bera (Bis)
ez bada ongi atera
animoak gainbehera,
horren da bat-batekoa
hartzen den kankatekoa

7-Desesperazioaren
ondorioak zein diren (Bis)
bertan jauzi ondoren
frustrazioari men
edozer egiteko gai
uretaratzeko ere bai.

8-Igeri ez dakienak
izan ditzake problemak (Bis)
sortzen diren eszenak
itsusiak gehienak
zenbat momentu kritiko
ta azkenerako ito

9-Bat ez ote da gehiegi
eta dagoeneko bi (Bis)
hain krudela da hori
Bidasoa hilobi
ezin dugu bilakatu:
irtenbide bat topatu!

10-Arduradunei kritika
hau lotsagarria baita (Bis)
non da zuen etika?
Aldatu politika
gizatasunik badago
ez dadin hil bat gehiago!

EL PILAR DBH2

VIEUX BOUCAU

Vieux Boucau Landasetan, Frantzian, dagoen herri bat da. Txikia nintzenetik urtero joaten naiz nire familiarekin edo batzuetan Anarekin. Han nire haurtzaro guztia igaro dut; karramarroak hartzen Anarekin, txirrindan ibiltzen nire anaiekin, pizzak jaten aitarekin, hondartzara joaten amarekin ... Handik, etxean egongo banintz bezala ibiltzen naiz, hango dena ezagutzen dut eta. Noizbait han bizitzera joatea nahiko nuke, oso garrantzitsua baita niretzat.

Vieux Boucau ez da Irun bezain handia baina gauza asko daude egiteko. Hondartza erraldoi bat dago. Udan joaten naizenean, oso gustoko dut hondartzan erlaxatuta egotea, itsasoaren soinu atsegina eta txoriak abesten entzutea. Herri honek laku ilun bat dauka, irla ñimiño baten inguruan. Normalean, lakua zeharkatzen dugu piragua batean, baina gero izugarrizko babak ditut eskuetan.

Nire ustez herri bat izateko oso bizia da, hau da, herrira joaten baldin bazara jende asko dago. Etxeak ikaragarri ederrak dira, oso koloretsuak dira, gainera batzuk hondartzaren ondoan daude. Hango jendeak konfidantza asko ematen du eta oso leialak dira.

Nire ustez benetan leku lasai eta adiskidetsua da. Honengatik eta milla arrazoi gehiagorengatik maite dut leku hau.

Irune Herrero (DBH 2)

Gazteek askotariko jardueren artean aukeratu ahalko dute ikasturte honetan

Ikasturte berria hiriko gazteentzako proposamenez beterik iritsi da. Martindozenea Gaztelekuan ohiko ekintzak berreskuratu dira, gazteentzako ekintza berriak aurkezteaz gain. Konekta zerbitzuak, berriz, Irungo gazteen eta udalaren arteko bitartekari lana egiten jarraituko du, beti ideia berriak entzuteko prest.

Santi Jiménez Gazteriako ordezkariak ontzat jo ditu ikasturte hasiera dela eta abian jarri diren ekimenak. Gazteria ordezkariaren esanetan, "garrantzitsua da gazteekin batera egiten dugun bidera itzultzea, berme gehiagorekin, gazteenak hiriko bizitzan parte hartzera animatzen jarraitzeko".

Ikasturte berriari hasiera emateko, Irungo Gaztelekuak zerbitzuko erabiltzaile gazteek uda nola pasatu duten partekatzeko lehen ekintzak antolatu ditu. Besteak beste, krepak egiten ikasteko tailerra, animezaleentzako topaketa eta Among-Us jokoan aritzeko saioa izan dira Martindozenean antolatutako lehen ekintzak. Gainera, ikasturte hasierarekin Gaztelekuaren kanpoaldea itxuraz aldatu da, Garikoitz C. Muruak sortutako muralari esker, iraila amaieran gazteekin serigrafia tailer bat antolatzeko baliatu zena.

Ane Calvo Martindozeneako arduradunak gogoratu duenez, Gaztelekua 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako espazioa da eta "gazteen arteko harreman osasuntsuak sustatzen dira bertan, errespetuan, berdintasunean eta ekitatean oinarrituta". Horrekin batera, aipatzekoa da nerabeek aukeratutako jarduerak programatuko direla hiruhilekoan zehar, hala nola zirku tailerrak eta ikus-entzunezkoen sorkuntza. Helburua da gazteak inspiratzea, haien gustu eta interesetan oinarritutako nolanahiko proposamenak probatzeko aukera ematea.

Gaztelekuak ohiko ordutegiari eutsiko dio ikasturte berrian. Astearte, asteazken eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara eskainiko da zerbitzua. Ostiral eta larunbatetan berriz 17:00etatik 21:00etara eskainiko da. Gainera, gazte eta nerabeei espazio seguru bat eskaini ahal izateko, Covid-19 kontingentzia plana mantenduko da. Martindozenean antolatuko diren ekintzen programazioa irun.org/gazteleku webgunean, Intagram eta Facebooken kontsultatu ahalko da. Topagunea, berriz, asteartetik larunbatera egiten jarraituko da.

Ikasturte honetan ere adinaren arabera banatutako bi gune eskainiko dira eta, horrela, ostiral eta larunbatetan, gaztelekuko bigarren solairua 15 urtetik 18 urtera bitarteko gazteentzat bakarrik izango da. Ane Calvok adierazi duenez, billarra, pin-pon mahaia, mahai-jolasak eta dardoak aurkituko dituzte gazteek. Gaztelekuko ordezkariaren hitzetan, "uste dut proposamen egokia dela adin bereko gazteak aurkitzeko, espazio diferentzial eta osasuntsu batean".

Hurrengo proposamenak

Berrikuntzen artean, aurten hiru hilabeteko iraupena izango duen tela akrobatikoko ikastaro bat eskainiko da. Ikastaroa urrian hasiko da eta asteazkenetan egingo da 17:30etatik 18:30etara eta 18:30etatik 19:30etara. Ane Calvok azaldu duenez, "talde oso murriztuetan egingo da eta lauko taldeetan banatuko dira".

Hurrengo ekintzen artean, Gaztelekuko ordezkariak azaldu du kontzertuak antolatzeko asmoa dutela. Bestetik, aurreko urtean Harry Poterrekin egindako moduan, asteburu tematiko bat antolatu nahi dutela gehitu du. "Gazteen proposamenak jasotzeko irekita gaude, zein interes dauzkaten ezagutu eta asteburu berezi hori prestatzen hasteko", gaineratu du Ane Calvok.

Konekta

Konekta zerbitzuak 16 urtetik 25 urtera bitarteko gazteentzako bitartekaritza zerbitzu eskaintzen jarraituko du. Gazteria Arloaren mendeko zerbitzua da eta ahal den neurrian normaltasunera itzultzeko asmoz hasi du ikasturtea. Bi bitartekari gaztek kudeatzen dute eta Udalaren eta gazteen arteko zubi lana egitea du helburu.

Maite Tolosa Konekta zerbitzuko arduradunak azaldu duenez, aurten antolatuko den lehen ekintzetako bat erabiltzaile batekin egindako proposamenetik dator: Padel txapelketa antolatzea. Ideia txapelketa urriaren 30ean egin ahal izatea da, baina data zehaztea falta da.

Horrela, Konetak hiru zeregin nagusi izango ditu aurten. Batetik, gazteei beren ekimenak garatzen jarraitzeko babesa ematea. Bestetik, gazteeik interesgarri iruditzen zaizkien gaiei buruzko topaketak eta prestakuntza saioak antolatuko dira, hala nola garapen jasangarrirako helburuen esparruan erronkak garatzekoak eta talentua eta gaitasun emozionalak kudeatzekoak. Maite Tolosak adierazi duenez, "gazteek proposatutako gaiak izango dira eta gazte hizlariak ekartzeko ahalegina egingo dugu". Era berean, erabiltzaileekin batera sortutako jarduera agenda bat programatuko da.

Ikasturte berri honetarako beste helburuetako bat sare sozialetan zerbitzuaren presentzia indartzea da. Adibidez, Instagram kontuaren egitura berrantolatuko da, Irungo gazteentzat erakargarria izan dadin eta beraiengana iristea posible izateko.

Maite Tolosak gehitu duenez, "gazteren batek zerbait egiteko edo sortzeko asmorik badu, jarri dadila gurekin harremanetan". Interesdunek Konekta zerbitzuarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute 656794372 zenbakian WhatsApp bidez, konekta@irun.org postara idatzita edo gazteartean_irun Instagram kontuaren bitartez.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IGazteren Buletin Elektronikoa

Egunean egon nahi al duzu enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi eta boluntariotzari buruz?

Izena eman ezazu IGazteren buletinean eta informazioa zure postan jasoko duzu. Bestela, buletinaren azken bertsioa iGazte webgunean kontsultatu dezakezu.

Irungo IGazte
CBA Kultur Gunea - San Juan plaza, z/g
www.irun.org/igazte - igazte@irun.org - 943 505 444 - Whatsapp: 607 771 173

Gipuzkoako Odol Emaileak

Odol emaile izan nahi duzu?

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Irundik atera gabe odola emateko aukera eskaintzen dizu.

Tokia: Iraso udal gizarte-zentroan, Virgen Milagrosa Kalean kokatua dagoena.

Egunak: Hilabete bakoitzeko bigarren, hirugarren eta laugarren ostegunetan, jaiegunetan izan ezik.

Ordutegia: 18:00etatik 20:30etara.

Hitzordua eskatzeko: Odola emateko hitzordua eskatzeko emaitza egin nahi den goizean 943 00 78 85 telefono-zenbakira deitu behar da.

Bidasoaldeko Ikaskuntzako Bitartekaritza Zerbitzua

Ikaskuntzako Bitartekaritza Eusko Jaurlaritzako zerbitzu publikoa eta doakoa da. Bere helburua 16 urte eta gehiagoko pertsonen artean prestakuntza sustatzea da, beren egoera soziolaborala edozein izanda ere.

Bitartekaritza zerbitzuan edozein ikaskuntzari buruz informatzen dugu.

Aholkularitza eta orientazioa:
- Gaurko eta geroko prestakuntza interesen azterketa, adierazpena eta zehaztapena.
- Bakoitzaren etengabeko prestakuntzaren Ibilbidearen plana egitea.
- Prestakuntza nahiei eta beharrei erantzuna emango dion informazioaren bilaketa.
- Hezkuntza titulu bat lortzea (DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Unibertsitate Ikasketak).
- Lan-titulazio bat lortzea (Profesionaltasun Ziurtagiriak, Lanbide Konpetentziak Ebaluatu eta Egiaztatzeko Prozedura, etab.).
- Bidasoaldean dagoen edozein hitzaldi, tailer, mintegi etab.
- Tituluak konbalidatzeko prozedura.

Kontaktua:
Virginia Garmendia Alonso
ikasbidasoaldea@ikaslangipuzkoa.eus
655 80 64 98
Plaiaundi Institutua - Eraikin nagusia, 1. solairua (103) -Irun

Ordutegia:
Astelehenetan: 11:00etatik - 18:00 etara
Asteartetik ostiralera: 08:00etatik - 15:00etara

Twitter: @Ikasbidasoaldea

Facebook: Bitartekaritza Bidasoaldea.

Ostiraletan

15 eta 18 urte bitarte badituzu... espazio berri hau zuretzako da!

Gaztelekuko bigarren solairuan, 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzako espazio berri bat sortu dugu.

Zein egunetan: Ostiral eta larunbatero, 17:00etatik eta 21:00ak bitarte. Zertarako: Billarrean jolastu, dardo partida bat jokatu, mahai jolasetan aritu, zure lagunekin hitz egin sofatan, tailerretan parte hartu,... edo besterik gabe, zure adineko jendearekin arratsaldea goxo pasa eta jende berria ezagutu! Gainera, tailer eta ekintzak egiteko zuen proposamenak entzuteko gogoz gaude, eta espazio berri hau zuekin batera dekoratu eta moldatzeko ere!

Zer egin behar da joateko: Ez duzu ezer egin behar, etorri eta kitto! Oraindik espazio berri horri buruzko zalantzak badituzu ostiraletan etorri zaitezke zuzenean 17:00etan zalantzak Gaztelekuko arduradunei galdetzera, edo bestela whatsappa bidali edo telefonoz deitu 690706471 edo 656794372 telefono zenbakietara.

GAZTElekua
MARTINDOZENEA

"Gaztelagun programa"

18 eta 35 urte bitartean badituzu, zure diru-sarrerak erregularrak badira eta zure ohiko etxebizitzarengatik alokairua ordaintzen ari bazara... Hau interesatzen zaizu!

Alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzak!

Zer da Gaztelagun? Eusko Jaurlaritzaren plan berria da, gazteen emantzipazioa sustatzeko. Hala, alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzak ematen zaizkie.

Eskaerak aurkezteko epea: 2021eko abenduaren 31ra bitartean irekia egongo da.

Jarri harremanetan gurekin: Tel.: 945 569 020 (8:30etatik 18:00etara) - gaztelagun@alokabide.eus



Urriak

2

Kontzertua

Zer: J.Brahmsen "Un Requiem Alemán" kontzertua, José Luis Barrioren omenez.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Parte-hartzaileak: Luis Mariano orkestra eta abesbatza eta Ametsa abesbatza.

Prezioa: Sarrerek 5, 18 eta 24 euroko prezioa izango dute.

Iraupena: 90 minutu.

3

GiraBira

Zer: Girabirak Txikimusika jardunaldia antolatu du.

Non: Mendibil parkean.

Ekintzak:
- 10:30etan: Tailerrak.
- 12:30 etan: Kontzertua.

7

Zure abenturaren bila

Zer: Zure abenturaren bila programaren barruan, "Iran eta Erdialdeko Asia bizikletan» ikus-entzunezkoa proiektatuko da euskaraz, Alvaro Teixeira protagonistarekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Hizkuntza: Euskaraz.

9

Antzerkia

Zer: Sevillako Atalaya konpainiak "Elektra.25" antzezlana taularatuko du gaztelaniaz.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Sarrerek 9,50 eta 15 euro arteko prezioa izango dute.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

10

Familientzako ikuskizuna

Zer: OstomilaTxotxongilo konpainiak txotxongiloen bitartez dramatizatutako Nikaraguar Pazifikoko bi istorio tradizional kontatuko ditu.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 11:00etan eta 12:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Hizkuntza: Euskaraz.

14

Dokumentala

Zer: "Larreaundi. Crónica de un barrio obrero" dokumentalaren aurkezpena.

Non: Amaia Kultur Zentroa.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Iraupena: 65 minutu.

Denbora-pasen emaitzak



9	7	3	2	8	5	6	1	4
5	1	6	3	7	4	8	2	9
2	4	8	1	9	6	3	5	7
4	3	7	9	2	1	5	6	8
1	6	5	7	4	8	2	9	3
8	2	9	5	6	3	7	4	1
3	9	1	8	5	2	4	7	6
7	5	4	6	3	9	1	8	2
6	8	2	4	1	7	9	3	5

LOS MUÑECOS DE LA TARTA

V Ezkontza azoka

Urriak 16 eta 17

FICOBA erakustazokan

PARKING DOAN!

www.losmunecosdelatarta.es

Kolaboratzaileak:

FICOBA

bidaShop

irun on